

Orritxu baten bidez bazkide ba-koitxari dei egin ondoren, alkarte onen diru-arazo, egiñak, ekinak eta besterik bazkideen aurrean argitaratu eta, zuzendaritza barriztatuteko, batzaldia ospatu zan Indautxu'ko Karmen eleizako aretoan, azillaren 3gn. egunean.

Euskerazaleak bazkunari saka egin eta ateak zabalagotuteko, beatzarriak bazterreratu eta azpiratzen-lanari urteatan buru, belarri emonik arduraturik bizi izan diranak, ordezkotza baten eskuetara aldatu daitean gura izan dabe, urtean zear bizkarrean euki daben zeregin arduratsua.

* * *

Joan dira, baiña urrin ez, betirako be ez.

Lengoetatik oraingoetaraiño datorren katea ez da ausi.

Eta zuzendaritzako maia inguratuko daben burukide barriak, gaiztasun eta eragozpenik aurkituko ba'lebe,

◆ EUS KE RA ZA LEAK ◆

beti izango dira tinko te zur, laguntasuna eskintzeko.

Beioakiez ba R. Urkijo, J. Oleaga, J. A. Montiano, J. M. Makua, A. Zalaia, K. Goñi ta M. Arandia jaunai, euskeraren eta Bilbo ta inguruetako eundak euskaldun barri eta euskerazaleak'en etxean ikasten diarduen ikasleen aldetik, euskaltxingarrezko millak esker eta agur txeretsu.

* * *

Oraingo barriak, one emen: Iñaki Zubiri, Xabier Peña, B. Ibarra, Kepa Dañobeitia, M. Olazar, J. A. Retolaza, X. Elgezabal, I. Egurrola, Fernandez Karnele, Anton eta Arrieta.

Lengoetakoak 4, barriak zazpi.

Soin baten alkartu egizuez zarren zurtasuna ta barrien irakiña.

Atzera ez adi!

Aurrerantz jo, beti ta beti!

LANDAJUELA'tar Anton'ek

ZER DA:

Koltza? — Burdi-gaiñean, zeozer jausi ez daiten, ipinten dan sarea.

Dantzut? — Entzuten dot.

Bipil? — Gogotsu adoretu.

Abenda? — Aba edo gurasoakandiko gorputz eta gogo-izakerea, errazea.

Aldaska? — Abarraren kimu barria edo lurrean sartzeko abarlanderea.

Belaunaldia? — Gizaldia, aldi bateko gizonen denporea, Gurasoak eta seme-alabak belaunaldi bi dira.

Basaberea? — Basoko aberea, piztia.

Kokatu? — Jarri, ezarri. Txoria abarrean kokatu da.

Leiatsua? — Gogotsua. Erritar leiatsua da.

Mokorra? — Zugatzaren enborzattia, edo antzeko arri-zattia: Mukurra.

Nasa? — Mollea, kaiaren zati bat.

Murrua? — Orma aundia, mokorrez osotua.

Neurkiña? — Neurtzeko artzen dan zatia. Metroa, litroa...

Eraltea? — Zabalduez indarra galtzea, diruaren «infanziñoa».

Arka? — Orma-bitartea.

Funtsezkoa? — Sendoa, oiñarri-duna.

Sundea? — Usaiña, txarra naiz ona. Erre-sundea dago emen.

Zergea? — Laterriak bere bearkizunetarako erritarrai kentzen dautsen dirua.

Iraslea? — Lan bat edo erakunde bat asi-azo edo irasiten dauana.

Triku-arria? — Euskaldunak Artzain-aroan, bi milla urte Kristo'ren aurretik, egin ebezan illobiak. Beste erri batzutan be ba dira eta dolmen esaten dautsee.

Isla: Mendi-gaiña ta zeru urdiña alkartzen diran lekua. Argiaren ditzizari be esateno jako.